



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko azaroaren 4a

24. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Antzerki Eskolaren lana aintzatesten da. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zenbait jarduketa eta protokolo egin ditzan, lanpostuak egokitzeko ezgaitasunen bat duten pertsonentzat. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da energia-aurrezpenari buruzko plan bat aurkez dezan, premiazkoa eta berariazkoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Defentsa Ministerioari eska diezaion Ezkabako Gotorlekuaren jabetza eskualdatzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren aniztasuna errespetatzearen aldeko hautua egiten du. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie errefuxiatu palestinarrei eta aitortzen baitu haiek beren etxeetara itzuli beharra dutela. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazten baitizkio Antioquiako erakunde indigenari. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko nola eraginen dion egungo Gobernuaren egonkortasunari eta eraginkortasunari lehen lehendakariordeak aldarrikatzen duen jarrerak, “mugarik eta bazterketarik gabeko elkarrizketa” hasteari buruzkoak, Santiago Cervera Soto jaunak egina (10. or.).
- Galdera, ETB ikusi ahal izateari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (11. or.).
- Galdera, goi karguek sozietate publikoen administrazio kontseiluetan parte hartzeari buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (11. or.).

- Galdera, jakiteko zein den “NUPekiko hitzarmena, osasun-esparru medikoan garatzeko eta berritzeko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Bekak ikasketak zabaltzeko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Arantza bifidoa duten gaixoen elkarreendako laguntzak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Drogamenpekotasunaren kontrako udal planetarako dirulaguntza” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Entitateei prebentzio komunitarioko programak egiteko ematen zaizkien dirulaguntzak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Argia familia-plangintzako zentroarekiko hitzarmena” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmenak, prebentzio programetarako eta osasunaren sustapenerako” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Osasun mentaleko zentroekiko ituna (Josefina Arregui zentroa)” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Gutxiengo etnikoen programarako hitzarmena” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Urdiain-Altsasuko industrialdearen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Enplegu Plana egiteari eta onesteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusi izandako bat ikastetxe itundu bateko zuzendari izatera pasatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoan dagoen burutza kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Antzerki Eskolaren lana aintzatesten da.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez aintzatesten baita Nafarroako Antzerki Eskolaren lana.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu du, premiazko prozeduraz Kultura Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Antzerki Eskolak jada 25 urte luze eman ditu Arte Eszenikoetan formazioa bideratzen Nafarroa osoan. Horrez gainera Arte Eszenikoan dibulgazioan egindako lana ere oso handia izan da.

Nafarroako Antzerki Eskolak formazio aukera ezberdin ugari eskaintzen ditu eta, horrez gainera, dibulgazioan programa ezberdinen bitartez Nafarroako artisten sarea ehuntzen sekulako lana egin du.

Nafarroako Antzerki Eskola, gainera, une honetan Arte Eszenikoetan herrialdean dugun

eskaintza bakarretakoa da eta hein horretan egiten duten lanaren aintzatespena Parlamentuak egiteari beharrezkoa deritzogu.

Denetara ere NAEren bizitzan jakin badakigu Gobernuarekin izandako harremanak oso ugariak izan direla. Ugariak diogu, diru finantziarioaren gorabeherak eskolaren jarduna kolokan jarriz urte asko daramatzalako.

Jakin dugu Nafarroako Antzerki Eskolako lagunen ahotik egoera larria bizitzen ari direla. Jakin dugu Hezkuntza Departamentutik jakinarazi zaizela, alde batetik, 2011ri zegokion diru-laguntza zati bat, 60.000 euro, 2012ra eramanen dela. Honek jada eskola 2011. urtea 40.000 euroko zorrarekin ixtea ekarriko du. Hori nahikoa ez balitz bezala, haien aurrekontu ildoak kentzeko aukera dagoela jakinarazi die Kultura Zuzendari Nagusiak.

Horrek eskola ixteko mehatxupearan uzten du eta jada aurreratuak dituzten emankizunak zein formazio eskolak bertan behera uztea.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Antzerki Eskolaren lana aintzatestea azken 25 urteetan Arte Eszenikoetan formazioan zein zabalpenean burututako lan esker-garengatik.

2. Nafarroako Antzerki Eskolaren lana garatzeko beharrezko diren baliabideak jartzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuarekin premiatzen du, Nafarroako Antzerki Eskolari dagokion diru-laguntza mantendu edo handitzeko bidean, departamentuen arteko bilera bat burutu dezan NAEen egiten den lanaren diru-laguntza bidea nork bere gain hartu adosteko.

Iruñean, 2011ko urriaren 21ean

Eleduna: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait jarduketa eta protokolo egin ditzan, lanpostuak egokitzeko ezgaitasunen bat duten pertsonentzat.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait jarduketa eta protokolo egin ditzan, lanpostuak egokitzeko ezgaitasunen bat duten pertsonentzat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Bakartxo Ruiz Jasok eta Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Ia 30 urte igaro dira Ezgaitasuna duten Pertsonak Gizarteratzeari buruzko Legea onetsi zenetik, eta Foru Administrazioan anekdotikoak dira ezgaitasuna duten pertsonen betetako lanpostu finkoak.

Nafarroako Gobernuak CC.OO, UGT eta AFAPNA sindikatuarekin 2010erako eta 2011rako sinatutako hitzarmeneko 7. atalean zenbait neurri jaso ziren, ezgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoa eskuratzen laguntzeko. Neurri horien ondorioz zenbait aldaketa egin dira, Administrazioan langile finko gisa sartzeari eta aldi baterako kontratazio-zerrenden kudeaketari dagokienez.

Ezgaituak administrazioan sartzeari den bezainbatean UPNk eta PSNk hiru hamarkada hauetan egindako kudeaketak porrot egin du. Ez dira bete ez Foru Erkidegoko arauak (lanpostuen % 5aren erreserba), ez Estatukoak (Ezgaitasuna duten Pertsonak Gizarteratzeari buruzko 13/1982 Legea; 62/2003 Legea; Aukera Berdintasunari

buruzko 51/2003 Legea, ezgaitasuna duten pertsonen enpleguaren eta okupazioaren alorrean ditzuten eskubideak arautzen dituen), ez eta Europakoak ere (Arrazoizko doiketei eta tratuari buruzko 2000/78/CE Zuzentaraua).

Abandonu horri aurre egite aldera, aldaketa txikiak egin dira Administrazioan langile finkoak sartzeari alorrean; aldaketa teknikoak dira, eta xede dute ziurtatzea ezgaitasuna duten pertsonentzako berariazko lanpostuak betetzen direla eta, hutsik gelditzen baldin badira, berriz ere kolektibo horri eskainiko zaizkiola. Hori ez da orain arte horrela egin izan.

Baina muntako aldaketa aldi bereko kontratazioan gertatu da, non lehentasuna ematen baitzaie % 33 edo gehiagoko ezgaitasuna duten pertsonen. Neurri horrek berekin ekarri du zenbait estamentutan –ezgaituentzako lanpostuak ez baitira kontratazio-zerrenda guztietan eskaintzen– aldi baterako kontratatzeke lehendabiziko lanpostu guztiak betetzea % 33tik gorako ezgaitasuna duten pertsonen.

Lanpostu bat eskuratzeko orduan langileen aniztasun interpersonalak beharrezkoa egiten baldin badu lanpostuaren hasiera-ebaluazio bat egitea langilearen gaitasun funtzionalari egokitze aldera, balorazio horiek are garrantzitsuagoak dira kolektibo horien kasuan; izan ere, desdoitze gehiago geldi daitezke agerian lanpostu bateko eginkizunak betetzeari dagokionez, eta banan-banan egin behar dira, langilearen eta lanpostuaren eta eginkizunen arteko harremana aztertuz.

Halere, balorazio orokor bat egin ohi da, lanpostura egokitzeko neurririk hartu gabe, lanpostuaren berariazko eginkizunak zeintzuk diren zehatz jakin gabe eta langile horiei harrera egin, babesa eman eta gainbegiratzeko politikarik gabe. Gauzak horrela, eginkizun berri bati aurre egin behar diren ohiko zailtasunak biderkatu egiten dira, estresa, egokitu ezina eta lankideekiko harremanetan gatazkak eraginez.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu, eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lanpostuen eskakizunei buruzko azterlan bat egin dezan eta banan-banan egin

dezan langilearen gaitasun funtzionalaren balorazioa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ezgaitasuna duten pertsonen kolektiboari harrera emateko protokoloak egitera, lanpostuak beharizan zehatzei egokitzera eta, baldin eta haien mugek lanpostuaren zenbait egin-

kizun betetzea eragozten badiete, plantilla indar-terza, gainontzeko lankideek ez dezaten lan-gain-zamarik jasan.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an.

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da energia-aurrezpenari buruzko plan bat aurkez dezan, premiazkoa eta berariazkoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita energia-aurrezpenari buruzko plan bat aurkez dezan, premiazkoa eta berariazkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, energia aurrezteko

plan bati buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Nafarroako Gobernuak departamentuak zerbitzu publiko garrantzitsuak ukitzen dituzten aurrekontu-murrizketa handiak iragartzen ari diren honetan, guk uste dugu energia-efizientziako egiazko politika bat aplikatu beharra dagoela, orobat ahalbidetuko duena, baita une hauetan ere, gastu publikoa nahiz pribatua gutxitzea energia-kontsumoaren arlo guztietan.

Energia-kontsumoa murriztu beharra ezartzen dute nazioarteko konpromisoek ere, zeinek gure erkidegoa behartzen baitute eta, "20-20-20" adierazpidearen bitartez 2020an kontsumoaren % 20 murrizteko konpromisoa ezartzen baitute.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du energia aurrezteko urgentziazko plan berariazko bat aurkez dezan, lau hilabete-ko epean, Parlamentu honetan.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Defentsa Ministerioari eska diezaion Ezkabako Gotorlekuaren jabetza eskualdatzeko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Defentsa Ministerioari eska diezaion Ezkabako Gotorlekuaren jabetza eskualdatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Ezkaba mendiaren gailurrean dagoen Alfontso XII.aren gotorlekua, zeinetik Iruñerri osoa eta, zehaztasun osoz, haren hiriburua ikusten baitira, Nafarroan inoiz eraiki den arkitektura militarreko obrarik handiena bide da. Nafarroaren XX. mendeko historia politikoaren gertakaririk erabakigarrien lekukoa ere izan da, baina haren aztarren egoera gero eta okerragoa da egun.

XX. mendearen amaiera arte, armadak zaindu zuen Alfontso XII.aren gotorlekua, goarnizio iraunkorra baitzuen bertan. Gaur egun, aldiz, bertan behera utzia darama hamar urte baino gehiago, eta behin baino gehiagotan izan da eraso bandaliko jomuga, bai eta jarduketa ofizialena ere, haren kontserbazioaren aitzakiarean areago bilatu baitute ezabatzea iragan latz eta odoltsuaren lekukotasun-aztarrenak, zenbaitek desagerrarazi nahi dituztenak.

Defentsa Ministerioak bere garaian adierazi zuen prest zegoela gotorlekuaren jabetza beste

administrazio publiko bati lagatzeko, haren interes estrategiko eta militarra aspaldian gainditu baitzen.

Nafarroako Gobernuak sarritan egin ditu inbertsio handiak Nafarroako ondareko erreferentziazko eraikin historikoak berreskuratzeko, eta horietako asko ez ziren eta ez dira haren jabetzakoak. Hala ere, gure ustez, egungo egoera ekonomikoa ez da ondarea leheneratze aldera inbertsio handiak egiteko aproposa, nahiz eta ikuspuntu sozial, kultural eta historiko batetik guztiz justifikatuta egon. Jabetza hartzeak, ordea, ez dakar inbertsioa berehala egin beharra.

Udal dermionan Ezkaba mendia hartzen duten zazpi udalak, bestalde, udalez gaindiko plan sektorial bat prestatzen ari dira Iruñerriko Mankomunitatearekin lankidetzan, Ezkaba mendia garrantzi bereziko lekune natural gisa leheneratzeko eta Iruñerriko nahiz Nafarroa osoko biztanleek kirola egiteko eta haien aisiarako prestatzeko. Baina plan sektoriala taxutzeko orduan behin eta berriro topo egiten dute gotorlekuaren etorkizunari buruzko zalantzekin, eta horrek zeharo baldintzatzen du udalez gaindiko proiektu sektorialaren onespina. Zalantza hori Nafarroako Gobernuaren jarduketa soil baten bidez gaindi daiteke, eta, beste aldearen aurrejoera ikusita, ez dugu duda egiten arrakasta izanen lukeela, epe labur batean hain zuzen ere.

Hori dela eta,

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Defentsa Ministerioari eska diezaion Alfontso XII.aren gotorlekuaren jabetza Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Iruñerriko Mankomunitateari eta Ezkaba mendia hartzen duten zazpi udalei gonbit egin diezaien lan-talde bat eratzea Nafarroako Gobernuaren ordezkariekin batera, Ezkaba mendiaren eta Alfontso XII.aren gotorlekuaren erabilerari buruzko udalez gaindiko proiektu sektorialaren prestaketa burutze aldera.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an.

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren aniztasuna errespetatzearen aldeko hautua egiten du.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren aniztasuna errespetatzearen aldeko hautua egiten baitu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramirez Errok eta Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko bozera-maileek, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatutakoari jarraiki, urriaren 20ko osoko bilkuraren 7. puntuan eztabaidatutako, gure lurraldean ematen den aniztasun ideologiko eta identitarioaren kudeaketaren eta integrazio sozial, politiko eta instituzionalarentzako politika orokorraren inguruko jabelduraren ondorioz sortutako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroa anitza da. Anitza da arlo askotan: ideologikoan, identitarioan, politikoan... Eta aniztasun hori aitortu, kudeatu, zaindu eta errespetatu behar dugu guztiok. Nafarroa anitza izatea ez da arazo bat, baizik eta harrotzeko moduko egoera bat. Pozik egon behar dugu gure lurraldeko errealitate-arekiko ikuspuntu ezberdinak daudelako, horrek Nafarroa aberats bat eraikitzen duelako. Inor ez da egiaren jabe, eta besteak entzun eta errespetatzek aberasten gaitu, pertsona, alderdi eta herri bezala.

Honela, gure lurraldean dagoen aniztasun ideologiko eta identitarioaren kudeaketa zuzena, hala nola integrazio sozial, politiko eta instituzionala lortzea gizartearen ordezkarien zeregin nagusietako bat suertatzen da, demokraziaren oinarri batez ari baikara.

Eta Bildu-Nafarroako parlamentu-taldeak mozio hau aurkeztu du oraindik ere aniztasunaren kudeaketa egokiaren bidean urrats asko eman behar ditugulako.

Arlo politikoan argi dago UPN eta PSNk beraien gehiengoa erabiltzen dutela, errodilo gisa, eta parte hartze esparru jakin batzuetan beste ordezkari presentzia ekiditen dutela sistematikoki:

Sindikatuak dagokienez, behin eta berriz salatu den bezala, onartezina da Nafarroako ordezkari-tza sindikalaren ehuneko 33a esparru guztietatik baztertea.

Eta gizarte arloan gauza bera gertatzen da. UPNren lehentasun politiko eta ideologikoekin bat ez datozen ekimenek ez dute UPNren arreta merezi. Eskandalagarria izan zen UPN Nafarroa Oinez 2011ra hurbildu ere egin ez izana.

Adibide hauek oso esanguratsuak dira Nafarroako Gobernuak herri honen aniztasunarekiko planteatzen dituen politikak definitzeko. Nafarroak duen aniztasunarengatik harro sentitu beharrean eta haren alde lan egin beharrean, isilarazten, ezkututzen saiatzen dira, ez dakigu oso ongi zeren beldur. Ziurrenik, beste iritziak entzutearen beldur, eta herri honetan guztiok haiek bezala ez dugula pentsatzen onartzearen beldur.

Eta aberastasun horren aurka egin beharrean, aberastasun hori sustatzeko politikak egin behar-ko lituzke Nafarroako Gobernuak: sindikatu eta oposizioko taldeek kudeaketa organoetan parte hartzea sustatuz, herritarren aniztasun kultural, sozial eta identitarioan sakontzeko ekimenak egin, herritarren parte hartze zuzena bermatuz, etab.

Nafarroako Gobernuak orain arte egin duen politika baztertzaila alboratu behar da, gizarteari begira jarri eta daukagun aniztasuna zaindu. Hau da Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak planteatzen duen erredua.

Aniztasunak demokrazia eskatzen du, eta demokraziak aniztasuna.

Honengatik guztiarengatik, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak hurrengo erabaki proposamena mahaigaineratzen du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren aniztasunaren errespetuaren aldeko hautua egiten du.

Aniztasun horrek betiere aitortua, zaindua, ordezkatua eta errespetatua izan beharko du, nafar gizartearen ondare nagusienetakoa baita.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du orain arte, arlo ezberdinetan, aniztasunaren aurka hartutako erabaki baztertzaila guztiak zuzentzera, gizarte integratu eta garatu batek behar duen modura.

3. Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari kurtso parlamentario honetan "Aniztasunaren kudeaketa zuzenerako lege proiektu" bat aurkez dezan, bere eztabaida eta onarpenarako.

Iruñean, 2011ko urriaren 27an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Maiorga Ramírez Erro

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie errefuxiatu palestinarrei eta aitortzen baitu haiek beren etxeetara itzuli beharra dutela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2011ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazi nahi die errefuxiatu palestinarrei eta aitortzen du indarrez lekualdatutako familiei beren etxeetara itzultzen utzi behar zaiela, segurtasunez eta duintasunez itzuli ere, haiek pairatutako edozein kalteren ordaina emanda, lurren, etxeen eta jabetzen suntsiketa barne.

2. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du palestinarrek eskubidea dutela plangintza-sistema bidezkoa eta ez diskriminatzailea edukitzeko, zeinetan erkidegoak plangintza-prozesuaren maila guztietan parte hartuko baitu eta zeinaren bidez amaiaraziko baita palestinarren jabetzako etxeen, eskolen eta azpiegitura zibilen eraispena, horiek erabili ezina eta lekualdatzeak eragiten dituen.

3. Nafarroako Parlamentuak zoriondu nahi du Nazio Batuen Errefuxiatu Palestinarrentzako Agentziak egindako lana, eta uste du Nafarroako Gobernuak babesten jarraitu behar duela UNRWAK egiten duen lana, Agentziak errefuxiatu palestinarrentzat bideratzen dituen programak mantentze aldera egindakoa, eta orobat eutsi behar zaiola UNRWAK Nafarroako gizartean egiten duen sentsibilizazio lana eta garapenerako hezkuntza lanari.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio helaraz diezaien adierazpen hau Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bidez Israelgo erakunde eskudunei, zeinei dei egiten baitie berrazter dezaten kokalekuen eta eraispenen politika, Nazioarteko Zuzenbidea urratzen duena."

Iruñean, 2011ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten baitizkio Antioquiako erakunde indigenari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2011ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten dizkio Antioquiako erakunde indigenari, Willian Carupia Cuñapak jasotako heriotza-mehatxuak direla-eta, eta eskatzen du Antioquiako erakunde indigenaren barne prozesua eta prozesu politikoa errespetatu daitezen.

2. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du nazioarteko erkidegoak egiaz parte har dezan eragile armatuek Kolonbian giza eskubideak, norbanakoarenak nahiz kolektiboak, errespetatzen dituztela zaintzerakoan eta Kolonbiako Gobernuari exijitzerakoan esku har dezan, arduradun nagusia

den aldetik, pertsona, kolektibo eta herri indigenen babesean.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Kolonbiako Gobernu Nazionaleko erakunde eskudunei eska diezaien, Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bidez, ziurtatzeko Willian Carupia Cuñapari, Antioquiako erakunde indigenari, Antioquiako herri indigenei eta erakunde indigenaren egoitzari babesa eta segurtasuna, eta lehentasun handienarekin egin ditzan egin beharreko ikerketak, mehatxuen egilea nor den argitze aldera.”

Iruñean, 2011ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko nola eraginen dion egungo Gobernuaren egonkortasunari eta eraginkortasunari lehen lehendakariordeak aldarrikatzen duen jarrerak, "mugarik eta bazterketarik gabeko elkarrizketa" hasteari buruzkoak.

SANTIAGO CERVERA SOTO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Santiago Cervera Soto jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko nola eraginen dion egungo Gobernuaren egonkortasunari eta eraginkortasunari lehen lehendakariordeak aldarrikatzen duen jarrerak, "mugarik eta bazterketarik gabeko elkarrizketa" hasteari buruzkoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Santiago Cervera Soto jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako kontseilari Jiménez jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Roberto Jiménez jaunak ondokoa adierazi zuen hitzez hitz: "ez daukagu batere mugarik Nafarroako Parlamentuan dauden indar politiko guztiekin hitz egiteko". Adierazpen horiek direla-eta, ondokoa jakin nahi dut:

– Lehen lehendakariordeak aldarrikatzen duen "mugarik gabeko elkarrizketak" zertan eraginen die, zure ustez, Nafarroako Gobernuaren egonkortasunari eta eraginkortasunari?

Iruñean, 2011ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Santiago Cervera Soto

Galdera, ETB ikusi ahal izateari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, ETB ikusi ahal izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehen-

dakariak ahoz erantzun dezan Foru Araubideko Batzordean:

Nafarroako Gobernuak ondokoa baieztatu zuen hitzez hitz, irailan, Nafarroan ETBra konektatzeari buruzko informazioa eskatu zitzaionean: "Egin diren azken kalkuluen arabera, Euskal Telebistaren kanalak Nafarroan telebista digitalaren bidez ematea, milioi bat euro inguru kostatuko litzateke."

Hori dela-eta, ondokoa jakin nahi dut:

Baldin eta gizarte zibila antolatzen bada eta zure erantzunean adierazitako diru-kopuru hori helburu horretarako biltzen badu, konpromisoa hartzen al duzu diru-kopuru hori helburu horrekin erabiltzeko eta, horrenbestez, ziurtatzeko ETBren kanal guztiak behar bezalako kalitatearekin ikusiko direla albait arinen Nafarroa osoan?

Iruñean, 2011ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, goi karguek sozietate publikoen administrazio kontseiluetan parte hartzeari buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, goi karguek sozietate publikoen administrazio kontseiluetan parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, ondoko galderak egiten ditu, idatziz erantzuteko:

1. Nafarroako Gobernuko zer goi kargu egon dira, 2003tik gaur arte, sozietate publikoetako administrazio kontseiluetan, Nafarroako Kutxa eta Banca Cívica barne?

2. Gobernuko goi kargu horietako bakoitzaren urteko ordainsaria eta kide den administrazio kontseilu bakoitzera joateagatik dietak, horietako bakoitzak urtero jasotakoak, 2003tik gaur egun arte.

3. Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde publikoen sozietate publikoetako zuzendari nagusien, zuzendari kudeatzaileen, zuzendari exekutiboen, kontseilari delegatuen eta gisakoen zerrenda xehakaturia, 2003tik gaur artekoa, eta horietako bakoitzaren urteko ordainsaria.

4. Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde publikoen sozietate publikoetako zuzendari nagusien, zuzendari kudeatzaileen, zuzendari exekutiboen, kontseilari delegatuen eta gisakoen zerrenda xehakaturia, 2003tik gaur egun arte sozietate publikoetako administrazio kontseiluetako kide izandakoena –Nafarroako Kutxa eta Banca Cívica barne–, eta kide izan diren administrazio kontseiluetako bakoitzera joateagatik dietak, horietako bakoitzak urtero jasotakoak, 2003tik gaur egun arte.

5. Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde publikoen fundazio publikoetako lehendakarien, zuzendarien, kudeatzaileen, administratzaileen eta gisakoen zerrenda xehakaturia eta horietako bakoitzak urtero jasotako ordainsaria, 2003tik gaur egun arte.

6. Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde publikoen sozietate publikoetako lehendakarien, zuzendarien, kudeatzaileen, administratzaileen eta gisakoen zerrenda xehakaturia, 2003tik gaur egun arte sozietate publikoetako administrazio kontseiluetako kide izandakoena –Nafarroako Kutxa eta Banca Cívica barne–, baldin eta halakorik badago, eta kide izan diren administrazio kontseiluetako bakoitzera joateagatik dietak, horietako bakoitzak urtero jasotakoak, 2003tik gaur egun arte.

Iruñean, 2011ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, jakiteko zein den “NUPekiko hitzarmena, osasun-esparru medikoan garatzeko eta berritzeko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “NUPekiko hitzarmena, osasun-esparru medikoan garatzeko eta berritzeko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "NUPekiko hitzarmena, osasun-esparru medikoan garatzeko eta berritzeko" izeneko kontusailaren betetze mailari buruz (8-

11/PES-00073). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

2011ko otsailaren 16an onetsi zen gastu osoaren baimena (100.000 €), bai eta xedatu ere.

- 2011ko maiatzaren 3an, laguntzaren 1. ordainketa gisa kontabilizatu zen 39.999,99 euroko ordainketa.

- 2011ko abuztuen 24an, laguntzaren 2. ordainketa gisa kontabilizatu zen 30.000 euroko ordainketa.

- Aitortu gabe gelditzen da 30.000,01 euroko obligazioa. Gobernuaren 2011-09-07ko Erabakiaren aplikazioaren mende dago; izan ere, horren bidez, neurriak hartu dira 2011ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasunaren helburuaren betetzea ziurtatzeko.

Aukera hau baliatu nahi dut gogorarazteko hiru hilean behin aurrekontu-betetzeari buruzko informazioa igortzen zaiola Parlamentuari. Abuztuan, zenbait inguruabar direla medio ohiko jokamoldearekiko atzerapenez, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak 2. hiruhilekoari buruzko informazioa

igorri zuen, eta, horrenbestez, galdera idatzia aurkeztu duen taldeak, PSN-PSOEK, eskura dauka informazio hori.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, jakiteko zein den “Bekak ikasketak zabaltzeko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Bekak ikasketak zabaltzeko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Bekak ikasketak zabaltzeko” izeneko kontusailaren betetze mailari buruz (8-11/PES-00074). Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

2012ko gastuen aurrekontuak “Bekak ikasketak zabaltzeko” izeneko 512001 51310 4809 311200 kontusaila jasotzen du, zeinak 240.000 euroko hasierako zenbatekoa baitu. Zenbateko horrek

100.000 euroko handitzea darama bere baitan, parlamentu-galderan aipatzen den parlamentuzuzenketaren ondorioz.

Osasuneko zuzendari nagusiaren apirilaren 19ko 638/2001 Ebazpenaren bidez onetsi zen profesionalei osasun zientzietako prestakuntza jarraiturako laguntzak emateko 2011ko deialdia, zeinak kontusail horri dagokionez 240.000 euroko gehieneko gastua baimendu baitzuen, eta, hortaz, kasuko gastu-erreserba egin zen.

Deialdia ebazte-fasean dago. Egiteke dago Ebaluazio Batzordearen bilera, eskabideak balioetsi eta kasuko kontzesio-proposamena egiteko deialdiko oinarrietako 5. atalarekin bat.

Deialdian baliteke aldaketak egitea, Gobernuaren 2011ko irailaren 7ko erabakiaren aplikazioa zein den; izan ere, erabaki haren bidez

neurriak hartu ziren 2011ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, jakiteko zein den “Arantza bifidoa duten gaixoen elkarteendako laguntzak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Arantza bifidoa duten gaixoen elkarteendako laguntzak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Arantza bifidoa duten gaixoen elkarteendako laguntzak" izeneko kontusailaren betetze mailari buruz (8-11/PES-00075). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Arantza bifidoa duten gaixoen elkarteei laguntzeko 2011ko aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza (51120 511002 4819 313904 kontusaila) Nafarroako Arantza Bifidoaren eta Hidrozefaliaren Elkarteari eman zitzaion, Osasuneko zuzendari nagusiaren apirilaren 27ko 659/2011 Ebazpenaren

bitartez, zeinean orobat onetsi baitziren emate hori arautzen duten oinarriak.

Oinarri horien arabera, ordainketa aurreratuak hiru hilabetean behin egiten dira, bakoitzean guztia-aren % 25 ordainduta. Ordainketa aurreratu bat egin baino lehen beharrezkoa da justifikaturik egotea.

Arestian aipatutako ebazpenean agindu zen diru-laguntzaren % 50 ordaintzea (15.250 euro), laguntza-ematea urteko bigarren hiruhilekoan egin zelako.

2011ko abuztuaren 5ean, Nafarroako Arantza Bifidoaren eta Hidrozefaliaren Elkarteak lehen ordainketaren ziurtagiria aurkeztu eta bigarrena ordaintzeko eskabidea egin zuen. Justifikazioa ontzat jo denez gero, abuztuaren 26ko 1388/2011 Ebazpenaren bidez agindu da bigarren ordainketa egin dadin.

Egiteke dago 7.625 euroko azken ordainketa bat, urteko azken hiruhilekoan egin dena, baldin eta Elkarteak behar bezala justifikatzen badu aurreko ordainketa egin izana.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, jakiteko zein den “Drogamenpekotasunaren kontrako udal planetarako dirulaguntza” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Drogamenpekotasunaren kontrako udal planetarako dirulaguntza” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Drogamenpekotasunaren kontrako udal planetarako dirulaguntza” izeneko

kontusailaren betetze mailari buruz (PES-00076). Hona Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

500000 51000 4609 311100 "Drogamenpekotasunaren kontrako udal planetarako dirulaguntza" (**) kontusailak 673.545 euro ditu esleiturik Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorretan.

Behin laguntzen deialdia onetsita eta eskabi-deak jaso eta balioetsita, 673.543 euro egiten zuten dirulaguntzak eman ziren ekainaren 30a baino lehen. Laguntzen emate-egintzan berean agindu zen 196.486 euroko ordainketa aurreratuak egin zitezten; gainontzeko ordainketa egiten dira onuradunek oinarri arau-emaeletan exijitutako agiriak aurkezten dituzten neurrian.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, jakiteko zein den “Entitateei prebentzio komunitarioko programak egiteko ematen zaizkien dirulaguntzak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Entitateei prebentzio komunitarioko programak egiteko ematen zaizkien dirulaguntzak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Entitateei prebentzio komunitarioko programak egiteko ematen zaizkien dirulaguntzak” izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (PES-00077). Hona Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

500000 51000 4819 311100 "Entitateei prebentzio komunitarioko programak egiteko ematen zaizkien dirulaguntzak" (**) kontusailak 270.315

euro ditu esleiturik Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorretan.

Behin laguntzen deialdia onetsita eta eskabideak jaso eta balioetsita, kontusailaren zenbateko osoa egiten zuten diru-laguntzak eman ziren ekainaren 30a baino lehen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, jakiteko zein den “Argia familia-plangintzako zentroarekiko hitzarmena” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Argia familia-plangintzako zentroarekiko hitzarmena” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "ARGIA familia-plangintzako zentroarekiko hitzarmena" izeneko kontusailaren

2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (8-11/PES-00078). Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Argia zentroarekiko hitzarmenerako kontusailak 121.193 euro ditu.

2011ko ekainaren 30ean, aurrekontuan jasotakoaren % 50 ordaindu izana zegoen kontabilizatu-ta, eta 2011ko abenduaren 31rako aurreikusita dago dena ordaintzea.

Halere, 2011ko azaroaren 7ko Gobernuaren Erabakiaren ondorioz –haren bidez, neurriak hartu ziren 2011rako aurrekontuan egonkortasunaren helburua betetzen dela ziurtatzeko–, ordainketa 2012ra atzera daiteke.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmenak, prebentzio programetarako eta osasunaren sustapenerako” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Hitzarmenak, prebentzio programetarako eta osasunaren sustapenerako” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Hitzarmenak, prebentzio pro-

grametarako eta osasunaren sustapenerako" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (PES-00079). Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

500000 51200 4609 311900 "Hitzarmenak, prebentzio programetarako eta osasunaren sustapenerako" (**) kontusailak 251.872 euro ditu esleiturik Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorretan.

Behin laguntzen deialdia onetsita eta eskabi-deak jaso eta balioetsita, 226.000 euro egiten zuten diru-laguntzak eman eta ordaindu ziren ekainaren 30a baino lehen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, jakiteko zein den “Osasun mentaleko zentroekiko ituna (Josefina Arregui zentroa)” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Osasun mentaleko zentroekiko ituna (Josefina Arregui zentroa)” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Altsasuko Josefina Arregui osasun mentaleko zentroarekiko ituna" izeneko kontusailaren betetze mailari buruz (8-11/PES-00080). Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

"Altsasuko Josefina Arregui osasun mentaleko zentroarekiko ituna" izeneko kontusailaren betetze maila, 2011ko ekainaren 30ean:

Hasierako kreditua:	561.627€	Datu horiek ikusita, proiektua ekitaldia bukatu aitzin osorik betetzea aurreikusten da.
Kreditu aldaketa:	432.000€	Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.
Aurrekontu bateratua:	993.627€	Iruñean, 2011ko irailaren 29an
Betetako zenbatekoa:	596.458 €	Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín
Betetako ehunekoa:	% 60	

Galdera, jakiteko zein den “Gutxiengo etnikoen programarako hitzarmena” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Gutxiengo etnikoen programarako hitzarmena” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Gutxiengo etnikoen programarako hitzarmena" izeneko kontusailaren 2011ko

ekainaren 30eko betetze mailari buruz (PES-00128). Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

"Gutxiengo etnikoen programarako hitzarmena" 500000 51200 4819 313903 (**) izeneko kontusailak 193.500 euro ditu esleiturik Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorretan.

Behin laguntzen deialdia onetsita eta eskabi-deak jaso eta balioetsita, 193.496 euro egiten zuten diru-laguntzak eman ziren ekainaren 30a baino lehen. Diru-laguntzak emateko ekitaldian berean agindu zen 134.389 euroko ordainketa aurreratuak egitea. Gainerako ordainketak laster egingen dira, onuradunek jada aurkeztu baitute eskatutako dokumentazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Urdiain-Altsasuko industrialdearen egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du Urdiain-Altsasuko industrialdearen egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Altsasu/Urdiaingo industrialdeari buruz (PES-51). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

F-1 fasea, jada hasita dagoena:

1.- 2011ko martxoaren 28an, Nasuinsaren kontratazio-atarian argitaratu zen obra horiek egiteko lehiaketa. Kontratua maiatzaren 18an sinatu zen, eta zuinketa-akta eta obren hasiera, 2011ko ekainaren 2an.

Harinsa Navasfalt enpresari esleitutako lanak dira 1. sektoreko 1. fasearen 1.1 etapari dagozkionak, eta aurtengo urriaren 15a da haien amaiera-data.

2.- Nafarroako Gobernuak beti defendatu izan du Urdiain-Altsasuko industrialdearen garapena; izan ere, eskualdeko eremu horretan ez zegoen lurzoru antolatu eta urbanizaturik, enpresa berriak eta inbertsioak hartu ahal izateko. Nafarroako Gobernuak behin eta berrero adierazi du eremu ekonomiko horren lekua bikaina dela, ahalmen handiko errepide- eta trenbide-ardatzen bilgunean baitago.

Nasuinsak badaki zein den gaur egun izan litekeen eskaera, hasiera batean gune horretan kokatzeko interesa duten enpresekin harremanetan egon baita. Hala ere, interes hori –egun, uste dugu 20.000-25.000 m² lurra dela, eskaeraren portaera historikoaren datuen arabera– ezin iza-

nen da berretsi enpresa interesdunek haien inbertsio-proposamena zehazten ez duten bitartean.

S-1 fasea, lizitatu gabea:

1.- S-1 sektore osoaren amaiera-data ezagutu-ko da 1. sektoreko bigarren etapa esleitzen denean. Nafarroako Gobernuak behin eta berrero esan du hurrengo urbanizazio-etapak garatuko direla eskaeraren bilakaeraren arabera.

2.- Ohikoa da proiektuaren eremuan dauden toki entitateek eta ukitutako lurzati- jabeek erre- kurtsoak aurkeztea Nafarroako Gobernuak onetsi- tako udalez gaindiko plan sektorialen aurka. Aipa- tu udalez gaindiko plan sektorialaren garapenaren barruan, Nafarroako Gobernuak auzi hori ikuspuntu juridikotik ari da aztertzen.

Altsasuko S-2 fasea:

1.- Bigarren sektoreko urbanizazio-lanak lizitatu aurretik, antolamendurako plan partziala idatzi behar da, udal ekimenez, hala ezartzen baita uda- lez gaindiko plan sektorialaren aurreikuspenen arabera; eta, ondoren, azkenik onesten den anto- lamenduari dagokion urbanizazio proiektua idatzi eta izapidetu behar da. Hala ere, ez dirudi komeni- garria denik udalak obra horiek lizitatzea, plan partziala eta proiektua onetsita badaude ere, aurretik ez bada berresten, txosten juridikoen bidez, lan horiek lizitzatzeko aukera eta komeni- garrtasuna, lurzoruaren jabeek aurkezturiko erre- kurtsoak kontuan hartuta.

2.- Galderaren bidez eskatzen den iritzia, jaki- na, eremu horretan eginen den azterlan arkeologi- koaren emaitzaren arabera izanen da. Horreta- rako, Nasuinsak aurreratu egin ditu S-2 sektoreari buruzko plan partziala garatu aurretiko prospekzio arkeologikoak egiteko beharrezkoak diren lan eta izapideak, eta gaur egun izapidetzen ari da lurzati- en desjabetzapena; izan ere, horri dagokion ukitu- riko ondasun eta eskubideen zerrenda 2011ko martxoaren 18an onetsi zen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Par- lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Inguru- meneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Enplegu Plana egiteari eta onesteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak galdera egin du Enplegu Plana egiteari eta onesteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bilidu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak galdera egin du Enplegu Planari buruz (PES 55). Hona Nafarroako Gobernuak Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Lehendabizikoz, beharrezkoa da argitzea parlamentuko galdera denborari buruzko akats batean oinarritzen dela, bertan esaten baita IV. Enplegu Plana 2011n amaitzen dela. Izan ere, IV. Enplegu Planaren indarraldia 2009ko ekitalditik 2012kora artekoa da, halako moduz non 2012ko abenduaren 31n amaituko baita.

Hori alde batera utzita, hona hemen galderen erantzuna:

Nafarroako Gobernuarentzat, enplegua sortzea da legegintzaldi honetako erronka nagusia. Enplegu planak dira enpleguaren arloko politika aktiboak garatzeko plangintza-tresna; hori dela eta, Gobernuak garrantzi handia ematen dio dokumentu horri.

Enplegu plan berria aurrekoa amaitu baino urtebete lehenago hasi ohi da prestatzen. Hala, 2012an Nafarroako V. Enplegu Plana onetsiko da.

Iragan irailaren 20an, departamentuaren jardura-eraildoak azaltzeko kontseilariak egin zuen agerraldian, zehaztu zen enpleguaren arloko politika aktiboak dinamizatzeko esparru berri bat prestatu eta abian jarriko dela. Egun bizi dugun egoeran, ezinbestekotzat jo da –CEN, UGT eta CCOO ere bat datoz horretan– arintasunez aztertzen hastea hurrengo urteetarako enpleguaren arloko politika aktiboak jasoko dituen esparru berria izan denaren oinarritzko dokumentua. Eta politika horiek bizi dugun errealitatera egokituak izan behar

dira, bai eta enpresa-indarberitzeari lotuagoak ere. Esparru berri horrek kontuan hartuko ditu, bereziki, emakumeei, gazteei eta 50 urtetik gorako langabetuei zuzendutako jardura-neurriak.

Dena den, egungo nazioarteko krisi egoeraren ondorioz, Nafarroako Gobernuak egungo testuinguru ekonomikora egokitutako jarduketak berriak sartzen ari da pixkanaka, Parlamentuak urtero onesten dituen Nafarroako aurrekontu orokorretan jasotako krisiaren aurkako neurrien bidez.

Bestalde, aurreko Enplegu Planetan bezala, hurrengoan ere oinarritzko irizpidea izanen da Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroan ordezkaritza handiena duten enpresaburuen erakundeen eta sindikatuen arteko kontzertazio soziala.

Halaber, plana prestatzerakoan kontuan hartuko dira bestelako erakundeen ekarpenak eta iritzia, hala nola ANEL, kooperatiben eta lan-enpresen alorrean, eta autonomoak ordezkatzen dituzten taldeak.

Parte hartuko duten sindikatuei dagokienez, errespetatuko da Askatasun Sindikalari buruzko Legean ezarritakoa, bertan zehazten baitira erakunde sindikal batek bete behar dituen betekizunak administrazioen aurrean ordezkaritza instituzionala izateko.

Esanenez, enplegu planak dira enpleguaren arloko politika aktiboen oinarria. Lan merkatuaren bilakaera, Nafarroan eta Espainian, mugatuta dago, oro har, jardura ekonomikoa sortzeko gaitasunaren eta gizartearen kontsumo-gaitasunaren arabera, betiere eskualdeko, nazioarteko eta nazioarteko testuinguruaren esparruan.

Eginiko laugarren galderari dagokionez, enplegu planek, beste neurri batzuen artean –krisiaren aurkakoak, esaterako–, lagundu dute langabetuen kopurua Nafarroako Foru Komunitatean batez besteko nazionala baino txikiagoa izan dadin. Hala ere, jabetzen gara langabezia areagotzearen eta egungo langabetu kopuru handiaren larritasunaz, eta enplegu planak urtetik urtera doitzen dira, lagungarriak izate aldera langileek eta langabetuek aukera gehiago izan ditzaten lan merkatuan sartzeko eta bertan mantentzeko edota lanpostu hobeak lortzeko.

Egungo Enplegu Planak indarrean jarraituko du 2012an. Haren ebaluazioak bidea emanen du Nafarroako Gobernuak heldu diren urteetan egin beharreko jarduketak zehazteko; hala ere,

jarduera horiek diseinatzeko, kontuan hartuko dira, nagusiki, egoera ekonomikoaren eta lan merkatuaren egoeraren bilakaera eta aurreikuspenak.

Azkenik, esan behar da enplegu plan berriaren aurrekontuak lotura izanen duela dokumentuan zehazten diren eduki eta lehentasunekin. Nafarroako Gobernuak berriro dio enplegua eta enplega-

garritasuna direla Nafarroako Gobernuaren lehentasuna.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusi izandako bat ikastetxe itundu bateko zuzendari izatera pasatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Nekane Pérez Irazabal andreak galdera egin du Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusi izandako bat ikastetxe itundu bateko zuzendari izatera pasatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak galdera egin du Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusi izandako bat ikastetxe itundu bateko zuzendari izatera pasatzeari buruz (PES 62/11). Hona hemen Lehendakarietzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Bateragarria al da Hezkuntzako zuzendari nagusi izandako bat ikastetxe itundu bateko zuzendari izatera pasatzea berehala?

Kontuan hartuta goi karguak direla, zuzendari nagusiak, kargua utzi ondoren, Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunez buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean ezarritako bateraezintasunen araubidearen menpe daude.

Aipatu foru legearen 3. artikulua 1. idatz-zatian hauxe ezartzen da: "Kargua utzi eta ondoko bi urteetan goi karguek ezin izanen dute jarduera pribatuetan aritu, karguan zeudenean haiekin zerikusia duten espedienteetan ebazpenik eman bazuten, ezta laguntza teknikorako, zerbitzuko edo antzeko kontraturik egin ere administrazio publikoekin."

Horrenbestez, goi karguak bateraezintasuna izanen du aipatu kasuetako batean baldin badago.

Ba al du eskubiderik kargu-uzteen ordainsaria jasotzeko? Hala baldin badu, kargu-uzteen ordainsaria bateragarria al da lansari berriarekin?

Azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikuluko 3. idatz-zatiaren arabera, Foru Komunitateko Administrazioiko zuzendari nagusiek eskubidea dute kargua utzi ondoren prestazio ekonomiko bat jasotzeko, artikuluko horretan ezarritako baldintzen arabera.

Artikulu beraren 2. idatz-zatian ezartzen denez, kargu-uzteen ordainsaria jasotzea bateraezina da, besteak beste, sektore publikoan nahiz pribatuan lanpostu finko batean edo aldi baterako lanpostu batean aritzeagatik eskuratzen diren ordainsariak jasotzearekin. Lanpostu horretan jasotako ordainsaria, urte osokoa kontatuta, kargu-uzteen ordainsaria baino txikiagoa bada, bien arteko aldea jasotzeko eskubidea izanen du soilik.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Lehendakarietzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoan dagoen burutza kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Víctor Rubio Martínez jaunak galdera egin du Nafarroako Administrazio Publikoan dagoen burutza kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak galdera egin du, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko burutzei buruz (PES 60/11), Hona Lehendakari-tzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Administrazio Publikoko burutzen kopurua, urtez urte, 2005etik hasita gaur egunera arte.

Hona hemen Foru Komunitateko Administrazio-ko burutzen kopurua, 2005etik hasita gaur egunera arte:

2005	2006	2007	2008		2009	2010	2011
Zerbitzuko zuzendariak	118	119	137	137	142	142	124
Atalburuak	318	320	370	370	378	373	351
Bulegoburuak	455	462	462	462	453	383	377
GUZTIRA	891	901	969	969	973	898	852

Koadro horrekin lotuta, ondoko inguruabarrak hartu behar dira kontuan:

– Bertan jasotzen dira Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuetako eta haien erakunde autonomoetako zuzendaritza-postuak, Foruzaingokoak, ikastetxeetakoak eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzukoak izan ezik.

– Urte bakoitzeko abenduaren 31ko egoera islatzen du, 2011. urteari dagokionez izan ezik; izan ere, datuak irailaren 28koak dira.

– Administrazio-ko langile finkoak eta haiekin parekatuek betetzen dituzten zuzendaritza-postuak jasotzen dira.

2.- Burutzak kentze aldera iragarritako Administrazioaren berregituratze-prozesua zein egoeratan dagoen.

Foru Komunitateko Administrazioa egituratzen duten zortzi departamentu berrien egitura organikoaren berregituraketa-prozesua, bai eta erakunde autonomo gehienena ere, iragan abuztuaren 24an onetsi zuen Nafarroako Gobernuak, eta 2012ko abuztuaren 31ko 172. NAO-n argitaratu zen.

3.- Gaur egun ba al da bere kargura langilerik ez duen burutzarik? Horien kopurua eta zein departamentukoak diren jakin nahiko nuke.

Plantilla organikoaren datuen arabera, hona hemen departamentu bakoitzean –erakunde autonomoak barne– dauden burutzak, egun beren kargura langilerik ez dutenak:

Departamentua	Atala	Bulegoa	Guztira
Lehendakaritza, Administrazio Publikoak eta Barnea	21	19	40
Ekonomia eta Ogasuna	7	22	29
Kultura, Turismoa eta Erakunde Harremanak	1	5	6
Hezkuntza	1	8	9
Osasuna	1	12	13
Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirol eta Gazteria	3	29	32
Landa Garapena, Industria, Enplegua eta Ingurumena	0	27	27
Sustapena eta Etxebizitza	0	17	17
Guztira	34	139	173

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako
eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli
